



Jone Muñoz - Leyre Rodriguez
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Antoine De Saint-Exupéry	3
Sarrera	4
<i>Printze txikia</i>	
• Kokapena	4
• Gaia	5
• Argumentua	5
• Istorioa	6
• Pertsonaiak	8
• Egituraketa	9
• Baliabideak	9
Iritzia.....	11
Bibliografia-webgrafia.....	13

Antoine De Saint-Exupéry

Bere benetako izena Antoine Marie Jean-Baptiste Roger de Saint-Exupéry da. 1900ko Ekainaren 19 jaio zen, Lyon izeneko Frantziako hiri batean; eta 1944 urtean hil zen 44 urterekin, Mediterraneo itsasoan, Marsellako kostaldetik hurbil. Idazle eta hegazkinlari frantziarra izan zen, *Printze Txikia (Le Petit Prince)* obra famatuaren egilea.

Familia noble batean jaio zen eta infanzia alai bat izan zuela esaten da, bere aitaren heriotza pasatu behar izan zuen arren. Ez zen oso ikasle ona. Artea eta arkitekturatik bideratu zen. Geroago pilotu egin zen, soldaduzka egiten zegoenean. Lan horren ondorioz bere lehenengo lanak idazteko inspiratu zen, *Courrier sud*, 1929 urtean eta *Vol de nuit*, 1931 urtean.



Buenos Aires-en bere emaztea izango zena ezagutu zuen, Consuelo Suncín.

1932. urtetik aurrera, bere enpresaren zailtasunengatik, kazetaritzan eta idazlanetan gehiago lan egin zuen. Vietnam (1934), Moscu (1935) eta Espainiaren (1936) egoerei buruz erreportaiak idazten zituen. Hala ere, ez zion hegan egiteari utzi eta errekor batzuk egiten ere sailatu zen, horietako batzuk istripuekin.

Bere humanismoaren hausnarketak *Terre des hommes* izeneko liburu batean bildu zituen, 1939an argitaratuta.

Bigarren Mundu Gerra hastean, 1939. urtean, aireko ejerzitoak mobilizatu eta beraientzako hartu zuten. Inbasio alemanak Frantziatik joatera behartzen du eta Nueva York-era joaten da Amerikarrek gerran sartzea lortzeko eta erresistentziaren ahots sendo bat bihurtu zen.

Han, "gizakien errespetua"ri buruz idatzi zuen, *Letter to a Hostage* liburuan. Urte horretan, 1943an, *Printze Txikia* haurrentzako fabula idatzi zuen, parabola bezala.

Azkenean, 1944 urteko udaberrian, Zerdeñara joaten da eta ondoren Korsikara. Dena dela, bere hegazkina desagertu zen horietako misio batean, 1944 urteko uztailaren 31n. Bere desagertzearen misterioak urteetan iraun zuen; eta hegazkinaren hondarrak bere identifikazioarekin 2.000 urtean aurkitu ziren.

Sarrera

Printze Txikia nobela motz bat da, Antoine de Saint-Exupéryren obrarik garrantzitsuena. 1943 urteko apirilean argitaratu zen ingelesez eta frantsesez. Geroago hainbat hizkuntzatarara itzuli zen, eta gehien irakurri eta itzuli den liburu frantsesa da. Idazleak marraztu ditu liburuan dauden marrazkiak, bere akuarelekin.

Istoria poetikoa eta filosofikoa da; kritikak egiten dira, helduen ikuspuntu “arraro”ei buruz eta horrela, haientzat “inportanteak” diren gauzak kritikatzeko dira.

Eleberri hau haur liburutzat jotzen den arren, gai oso sakonak tratatzen dira: bizitzaren zentzua, bakardadea, kidetasuna, amodioa, galera... Giza izaera eta giza erlazioei buruz ere behaketak daude. Hau adierazten da, Printze Txikia nobelan zehar ezagutzen dituen hainbat izakirengandik ikasten duenean.

Istorian, printzeak jende asko topatzen ditu: lorea, azeria, sugea, erregea, harroxkoa, edalea, negozio gizona, farolaria eta geografoa. Horiek guztiek sei planeta desberdin bisitatzeko ezagutzen ditu. Hala ere, pertsonaia garrantzitsuena hegazkinlaria da. Hasieran, Printze Txikiarekin topatzen da eta gauza asko irakasten diote elkarri. Narratzailea da, idazlearekin identifikatu ahal da eta istoriotik zehar gidatzen du irakurlea.

Obra hogeita zazpi kapitulutan antolatzen da. Kapitulu bakoitzean egun bat pasatzen da, edo planeta batera joaten da. Hasieran Lur planetan egoten da Printze Txikia, baina geroago beste planeta batzuk esploratzera joaten da, eta Lurrera bueltatzen da. Han basamortutik, belarretatik eta beste leku batzuetatik pasatzen da. Horrela, animaliak ere ezagutu egiten ditu.

Kokapena

Istoriaa Saharako basamortuan hegazkinlariarekin eta Printze Txikiarekin hasten da. Hegazkinlariak istripu bat izaten du hegazkinarekin eta han amaitzen du; horrela topatzen du Printze Txikia.

Printze Txikiak hegazkinlariari nondik datorren kontatzen dio; gizontxoak unibertsoan dagoen asteroide txiki batean bizi dela esan du, eta bere planeta bere bizitokia dela esaten dio.

Asko hitz egiten dute, eta halako batean printzeak planeta batzuetatik berak egin zuen ibilbidea azaltzen dio. Planeta horietan pertsona nagusi desberdinak ezagutzen ditu.

Horren ondoren, basamortuan garatzen da istorioa, printzea hona bueltatzen denean. Han, animalia batzuekin eta beste izakiekin topatzen da. Hori printze txikiak kontatzen dio hegazkinlariari. Bere istorioa amaitzean, berriro printzea eta hegazkinlariarekin jarraitzen du istorioak, basamortuan.

Gaia

Ez du oinarri finkorik, alde batetik, bi pertsonen arteko adiskidetasuna edo erlazioa azaltzen digu. Beste alde batetik, bizitza eta nagusitasuna eta haren pentsamenduen hausnarketa azaltzen digu.

Argumentua

Hegazkinlari batek Sahara desertuan istripu bat izaten du bere hegazkinarekin, eta han haur baten itxurako pertsona bat ezagutzen du. Honek bere planetari buruz eta gizona ezagutu baino lehen gertatutakoaren istorioak kontatzen dizkio.

Hauek biak elkarrekin denbora asko pasatzen dute hitz egiten.

Istoriaa: gertakizun nagusiak

- ❖ Hegazkinlari batek istripu bat izaten du bere hegazkinarekin eta Sahara desertuan amaitzen du. Han, gizontxo batekin topatzen da, Printze Txikia deitzen dio. Hegazkinlaria bere hegazkina konpontzen saiatzen da, baina bakarrik zortzi bat egunetarako ura du.
- ❖ Printze Txikiak bere bizitokiari buruz hitz egiten dio: asteroide txiki bat da, han bi sumendi aktibo eta jarduera gabeko bat ditu. Ere baobab txiki batzuk hazten dira eta asko maite duen lore bat zaintzen du.
- ❖ Printze Txikiak kontatzen dio gizonari lorearekin arazoak zituela eta bere bizitokia denbora tarte baterako uztea erabaki zuela. Horregatik sumendiei kedarra kendu dizkien, baobab-ak erauzi zituen, azkenik, lorea ere agurtzen du.
- ❖ Printze Txikiak gizonari Lur planetara ailegatu baino lehen izandako abenturak kontatzen dizkio:
 - Lehenengo bisitatzen duen asteroidean oso berekoia zen errege bat bizi zen.
 - Bigarrenetan harroxko bat zegoen.
 - Hurrengoan, edale bat bizi zen. Honek esan zion gizontxoari, edaten zuela lotsatzen zelako edaten zuelako.
 - Laugarrenean, negozio gizona zegoen. Izarrak zenbatu eta kudeatu egiten zituen denbora guztian, horregatik pentsatzen zuen guztiak bereak zirela. Hala ere, Printze Txikiak esan zion ezin zituela izarrak berarentzako izan, ez zela posiblea eta ez ziela gauza onik egiten.
 - Bosgarrenean, farolari bat zegoen. Oso lan nekeza zuela esaten zuen, bere asteroidea oso txikia zenez egunak minutu batean soilik pasatzen ziren. Gainera, gero eta azkarrago birak ematen zituen.

- Hurrengo asteroidea geologo batena zen. Honek esploratzaile bat behar zuen, asteroidea esploratzeko eta mendiak, ibaiak, eta abar bere liburuetan idatzi ahal izateko. Horrez gainera, printzeari Lur planeta bisitatzea aholkatu zion; printzeak kasu egin zion.
- Azkenean Lurrera ailegatu zen, eta Afrikako Sahara basamortuan amaitu zuen. Han suge eta lore batzuekin hitz egin zuen. Ere mendi hilera batean konturatu zen oihartzuna existitzen zela, pertsonak aurkitu nahi zituenean. Ondoren, arrosa asko aurkitu zituen, eta bere planetako lorea bakarra ez zela konturatu zen. Azeri batekin topatu zen eta honek bizitzari buruz oso aholku garrantzitsu bat eman zion:

“Bihotzarekin baino ez da ongi ikusten. Funtsezkoa ikustezina da begientzat”. Bi pertsona ezagutu zituen eta haiekin hitz egin zituen.” (Orratz zaina eta pilula saltzailea)

- ❖ Istorio hau kontatzen amaiduan, hegazkinlaria ur faltan dagoela konturatzen da eta biak ur bila joaten dira, basamortuan zehar.
- ❖ Printze Txikiak Lurrera ailegatu zenetik urte bat pasatu dela esaten dio hegazkinlariari, eta bere bizitokira berriro bueltatu behar dela.
- ❖ Azkenean, agur esaten diote elkarri eta printzea joaten da. Biak triste daudenez, printzeak gizonari gogorarazten dio, handik aurrera izarrak begiratzen dituenen, barre egitea, beraren oroimena izateko.

Pertsonaiak

Hegazkinlaria. Printze Txikiarekin, pertsonaia garrantzitsuena da. Idazleak beraren erreflexua gizon nagusi bat da, txikitatik marrazkilaria izateko ametsa ahaztu zuena. Ez dago eroso bere bizitzarekin eta nahiago du bakarrik egotea eta mundua bere hegazkinarekin bisitatzea; beste pertsona nagusietatik urrunduz.

Printze Txikia. Hegazkinlariarekin, pertsonaia garrantzitsuena da. Asteroide batean bizi da eta unibertsoko beste lur batzuk inbestigatzera joaten da. Gehien gustoko duena eguzkiaren ezkutatzeko-sartzeak begiestea da. Bere bizitza, lore baten ailegatzearekin aldatzen da. Maitatzen du, baina hasieran ez du ulertzen.

Lorea. Arrosa benetan polita eta berezia da. Hala ere, berekoia eta nahiko harroa da; eta printzea bakarrik bera zaintzera dedikatzea nahi du.

Erregea. Beste asteroide batean bizi den errege harroa da. Guztia berarena izatea eta berari kasu egitea nahi du; baina azkenean, horrek guztiak bakardadera eramaten du.

Harrokoa. Beste asteroide batean bizi da. Bakarrik laudorioak entzuteko prest dago, berdin da egia edo gezurra izan. Beti oso dotore jantzia dago, besteek berari alabantzak egiteko; baina azkenean, erregea bezala, bakarrik geratzen da.

Edalea. Asteroide desberdin batean bizi den mozkorra da. Edan egiten du, lotsatzen delako edan egiten duelako.

Negozio gizona. Egun osoan zehar “bere” izarrak zenbatzen pasatzen da. Patentatu egiten ditu, eta hau aberatsa egiten diola uste du.

Farolaria. Bere asteroidearen farola denbora osoan pizten eta itzalden dago. Bere lana hori da, eta oso lanpetuta dago hartan, baina egiteagatik egiten du, ez dio zentzurik ere aurkitzen. Oso negaturik dago, minutu bakoitzean itzali eta piztu behar duelako farola.

Geografoa. Bere lanean oso sartuta dagoen gizona da, baina ezin duelako bere lana egin, ez duelako behar den laguntza. Ez dio benetan mendiak eta ibaiak marrazteari erabilera aurkitzen.

Azeria. Printzearen antzeko nagusitasuna du liburuan. Izaki arduragabea da, eta pixka bat berekoia. Hala ere, maite izateko ahalmena duela konturatzen da. Horregatik, printzearen laguna izatea lortzen du. Azeria hurrengo esaldi famatuaren egilea da:

“Bihotzarekin baino ez da ongi ikusten, funtsezkoa ikusezina da begientzat”.

Egituraketa

Idazleak 1. pertsonaia narratzailean idatzi du. Narratzailea hegazkinlaria da; eta honela, bere burua islatzen du. Kapituluaren bidez antolatuta dago baina haien artean Printze Txikiaren memoriak flash-back eran azaltzen ditu. (Lur planetara ailegatu baino lehen gertatutako eginkizunak)

Baliabideak

Liburu honetan, idazleak baliabide asko erabili ditu. Narrazioa, lehenengo pertsonan egin du, baina parte asko bigarren pertsonan, printzearen istorioak kontatzen dituenean.

Deskribapen asko erabili ditu, Printze Txikiak pertsona eta animalia askorekin topatzen delako eta horiek guztiek deskribatu behar izan dituelako. Horrela, irakurtzean konturatzen gara, pertsona eta animalia hauek guztiak, gaurko gizartearen portaera eta pertsona desberdinak islatzen dituztela. Lekuak eta pasisaiak ere deskribatu ditu, protagonista hainbat leku desberdin bisitatzen dituelako. Deskribapenak egiteko adjektibo ugari erabili ditu.

Elkarrizketak eta barne-bakarrizketak ere egon dira. Printze Txikia bere bidaian jende berezi asko ezagutzen ditu, eta haiei buruz barne-bakarrizketak egiten ditu. Adibidez, asteroide batean amaitzen duenean, askotan esaten du “pertsona nagusiak zinez bitxiak baino bitxiagoak dira”, ez dielako ulertzen.

Idazleak liburu hau kontatzeko duen modua nahiko bitxia da. Dena metaforak dira, gure bizitzari buruz, pertsona nagusiei buruz, umeen pentsamenduari buruz eta pertsona desberdinentzako garrantzitsuak diren gauzei buruz. Kontatzeko modua hegazkinlariaren pentsamenduen arabera egokitua dago. Izan ere, abiadoreak idazlea errepresentatzen du.

❖ Figurak:

Metafora. Bi elementuen arteko antzekotasuna da: irudizkoa eta errealia. Irudizkoak errealia ordezkatzeko du.

Liburu osoa metafora bat da. Pertsonaia bakoitza pertsonen nahi eta gogoaldarte desberdinak errepresentatzen ditu.

Metafora solteak ere daude:

1. Adibidez, printzeak hegazkinlariari eskatzen dionean arkume bat marrazteko eta honek kutxa bat marrazten du. Hau irudimena izateko eskubidea adierazten duen metafora bat da; kutxa horretan nahi duena egon ahal delako.

Pertsonifikazioa. Pertsonak ez direnei pertsonen ezaugarriak ematean egiten dira. Momentu askotan daude, animalia eta landare mordorekin hitz egiten baitu printzeak.

- 1 *“Hala ere, loreak indar handiagok ez tul egin zuen, printze txikia damu zedin”*

- 2 —*Egun on —esan zuen loreak.*
- 3 —*Azeri bat naiz —esan zuen azeriak.*
- 4 —*Adio —esan zuen loreak.*

Konparazioa. Bi elementu konparatzen ditu. Liburu osoan zehar daude.

- 1 “*Denak bere lorearen antzekoak ziren.*”
- 2 “*Hau bezalako mendi garai batetik.*”

Iritzia

Printze Txikia liburua hil baino lehen irakurri behar den liburu horietako bat da. Bizitzari buruz hainbat gauza eta pentsamendu berri ematen ditu. Ume txikien liburu edo ipuin bat dela esaten dute baina nagusi batzuei ondo etorriko litzaieke liburu hau irakurtzea.

Printze Txikia liburua irakurtzen amaitzen duzunean, ulertarazten dizu maitasunaren eta adiskidetasunaren garrantzia. Alde batetik, maitasuna adierazten du Printze Txikiak arrosarengan sentitzen duenarekin. Loreak umetxoarekin txarto portatzeaz gero Printzeak ez dio ezer ez esaten maite duelako, loreak den bezalako gustuko du eta unibertsoan bakarra dela uste du.

Beste alde batetik, adiskidetasunari buruz, protagonista hegazkinlariarekin duen erlazioa da. Biek oso bateratuta daude eta Printze Txikiaren galera nola sufritzen duen gizonak demostratzen du.

Mundu osoan zehar asko erabili den eta oso famatua den esaldi bat agertzen da:

“Bihotzarekin baino ez da ongi ikusten. Funtzekoa ikusezina da begientzat”

Honek gizakiaren izaerarako oso garrantzitsua da, eta honekin idazleak oso argi uzten gaitu gainazalekoak garela. Argi dago arrazoia duela.

Egia da, oso irudimen zabala izan behar dela ondo ulertu ahal izateko liburu hau. Idazleak ez du argi uzten pertsonai bakoitzarekin zer transmititu nahi duen. Horregatik ez da ume txikientzako liburua. Haien soilik istoria ulertuko lukete, zer gertatzen den pertsonaiarekin. Baina funtzekoa, hau da, liburuaren metafora edo benetako esanahia ez lukete ondo ulertuko oso txikiak direlako bizitzaren funtzezko ideiak ikasteko.

Liburuaren metafora garrantzitsuenetarioa, pertsonai sekundarioak benetako gizon edo emakumeen sentimenduak edo beharrak dira. Adibidez, printzeak bere abenturetan kontatzen duenean esaten du bosgarren asteroidean farolari bat dagoela. Egun osoa ematen du bere lanean, deskantsatu gabe. Horrek pertsonen lan beharra adierazten du. Beti lanean eta inoiz ez deskantsatu.

Azkenik, ipuin honetan, heriotzaren edo lagun baten galerari buruz oso metafora polita azaltzen du. Beti izarretara begiratzen duzunean, irribarre egingo duzu, ni bezala, eta besteek zuri ikusterakoan ez dute jakingo zergatik baina gertatzerakoan beti nitaz gogoratuko zara eta honela ez gara inoiz bata besteari ahaztuko –kontakten dio Printzetxoak hegazkinalariari–.

Bibliografia

Printze Txikia, Antoine De Saint-Exupéry. Salamandra.

Webgrafia

<http://principito-sscc.blogspot.com.es/2007/08/personajes-y-caracteristicas.html>

http://es.wikipedia.org/wiki/El_principito

<http://ojoconelarte.cl/?a=2632>

http://docentes.educacion.navarra.es/fmorenot/4/PDF/literatura_baliabideak.pdf

Gida

<http://atalak.net/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>

Hiztegiak

<http://ehu.es/ehg/zehazki/>

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

Zuzentzailea

<http://www.xuxen.com/>